



Buen Gobierno

Dekalogo

Donostia. 2014-03-29

1.- Dekalogo.

Gipuzkoa 2015 egitasmoak ondorengo oinarrizko konpromisoak hartzen ditu Gobernu Onaren arloan:

1. **NORTASUN IKURRA:** Gobernu Onerako politikak gure nortasun ikurretako bat izatea bermatu.
2. **GARDENTASUNETIK KONFIANTZARA:** Guztiz gardena izan, eta gardentasun osoz jokatu, konfiantzan oinarritutako harremana finkatzeko herritarren, eta klase politikoaren eta Erakunde Publikoen artean.
3. **LANKIDETZA ETA KONPROMISOA:** Partehartzea eta herri konpromisoa sustatu, herritarrak, gizarte eragileak eta elkartegintza erabakitze prozesuen erdian kokatuz, eta funtsean sormen partekatuan oinarritutako ekintza publikorantz pausoak emanaz.
4. **IREKITASUNA:** Une oro kontu eman modu eraginkorrean, gobernua eta zerbitzu publikoak jendaurrearen eskura eta begiradapean egon daitezen bermatuz.
5. **ETENGABEKO BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETASUNA:** Gobernu moldeetan eta zerbitzuen eskaintzan ekintzailetasuna eta berrikuntza sistematikoa sustatu, irekiagoak izan daitezen, eta politika guztien azken emaitzak balio publikoa sor dezan.
6. **OINARRI ETIKOA:** Kudeaketa publikoan ardura duten pertsonen egunerokoan, kontratazioetan eta proiektuen garapenean jokabide etikoa ardatz izatea zaindu.
7. **INFORMAZIOTIK EZAGUTZARA:** Datu publikoak jendaurrearen eskura modu erraz eta eraginkorrean jarri (Open Data), informazioa herritarren bizi-kalitatea hobetuko duen ezagutza bihurtzea erraztuz.
8. **LIDERGO PARTEKATUAK:** Lankidetza publiko-pribaturako sinergia guztiak bultzatu eta erraztu, eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalak ingururik gertuenean Gobernu Onaren arloan finkatzen ari diren aukera-eszenatokietan egotea ziurtatu.

9. **ANTOLAKETA EREDU BERRIA:** Transbertsalitatea eta desburokratizazioaren aldeko apustu irmoa egin, erabakitzeak modu egokiagoan hartu eta herritarrei arreta hobe emateko. Kudeaketa arindu, kalitate sistemen eta helburuen arabera kudeaketa ereduak, gertutasuna, eraginkortasuna eta interkonexioa ahalbidetuz.

10. **KONTSENTSUA ETA GOBERNU ERLAZIONALA:** Herritarrekin eta gizarte eragileekin harreman bideak sustatuko dituen Gobernu erlazional baterantz egin, eta teknologia berriak erabili partehartzean, eztabaidan eta deliberazioan oinarritutako gobernantza ereduak garatzeko.